

ZUMAIAN ZER GERTATZEN DEN KONTATZEN DUEN HILABETEKARIA

# balaitze

2004ko MAIATZA,  
121. ZENB. DOHAINIK



# Txapel dunak!!

TXALAPARTA ETA DANTZA GUSTOKO BADITUZU... TTAKUNPA

**HERRI ALDIZKARIA**

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

**Argitaratzailea**

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

**Administrazio batzardea**

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

**Koordinatzailea**

Juan Luis Romatet

**Kazetariak**

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Gurenda Serrano

**Kolaboratzaileak**

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Haize Galarraga, Ixiar eta Estitxu

Eizagirre, Karmelo Arroiabe, Gorka

Ormazuri, Xabier Aizpurua, Ibon

Aizpurua, Izaga Garzia, Beñat

Fernandez de Arroyabe, Ihintz

Linazisoro, Jon Maia, Eguzki

Agirrezabalaga, Natur Taldea, Ander

Hormazuri, Aitor Manterola.

**Argazkilaria**

Eva Franco

**Diseinua eta maketazioa**

Roberto Gutierrez

**Hizkuntz zuzenketa**

Imanol Azkue

**Publizitatea**

943 86 15 45 tel. (Esther)

**Inprimategia**

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

**Tirada**

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

**Baleike** ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean .....4  
 trinidad santua .....6  
 ze berri .....7

**patxi saiz 7**  
**bertso txapelketa 8**



**hur eskola** .....10

olarro zopa .....14  
 kirola .....16

**futbola 16**  
**arrauna 18**

**ttakunpa** .....21



gure zumai zarra .....24  
 kultura .....27

**zinea 27**  
**ipuina 28**  
**agenda 29**



**GU HITZAREN HARPIDEDUN...  
 BESTEAK ZERGATIK EZ?**



- 689 harpidedun ditu Hitzak Zumaian
- Hitzak ezinbestekoa du zabaltea, ahalik eta etxe gehienetara iristea...
- Uztaila bitartean ahalegina egingo al dugu 1.000 harpidedunera hurreratzeko?

**Nola? Denon artean!**

Begira dezagun inguruan: familiakoak, lagunak, bizilagunak... Hitzaren harpidedun dira? Ez? Eta zergatik?

- Etxean jasotzen da
- Ez dago ordaindu beharrik
- Eskualdeko osoko informazioa
- Euskaraz

Zer egin? Bakoitzak harpidedun bat edo batzuk lor ditzala eta gero nahikoa da 943 304346 telefonora deitu edota harpidedun orriak betetzea Foto Merten edo Aizpurua liburudendan.  
**EA EKAINEN 750ERA IRISTEN GAREN!!**

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaiaiko Udala**



**CAJA LABORAL**  
 EUSKADIKO KUTXA



**kutxa**  
 gizarte ekintza



**EUSKO JAURLARITZA**  
 GOBIERNO VASCO



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

## Euskal kultur gune bat Zumaian

ZUMAIAN EUSKAL kultur gune bat behar da. Ez dut esan nahi euskara talde bat bakarrik, hori ere ez dagoen arren. Ez, espazio bati buruz ari naiz, taberna batez, hain zuzen ere. Gune independente bat, ahal den neurrian autofinantziatua. Bertan, euskara (edo) kultur taldeak berak erabakitako dinamika gauzatzeko litzateke: ikastaroak, erakusketak, ikuskizunak, kontzertuak... berak nahi duen programazioarekin, ordutegiarekin, inori baimenik eskatu gabe, era independente batean. Horrez gain, elkartzeko leku bat izango litzateke, topagune bat, kafea hartzeko, bilitzeko, tragoak hartzeko... eta asteburuetan tabernen itxierari segida emateko gai balitz, hobeto. Horrela, diskoteketara edo Zarautzera joan beharra baino gertzen ez zaionari herrian ber-

tan alternatiba bat eskainiko genioke. Ez hori, bakarrik, euskaran edo kultur arloan orokorrean murgiltzeko gogoak daukanak aukera eder bat izango luke gune berri honekin.

Udalak kultur programazio zabal bat eskaintzea ondo dago eta bere betebeharrak da, baina herrian egiten den guztia udalean bururatutakoa baino ez izatea tristea da.

Ez dakit ametsetan ari naizen, baina nik bota egin det...



Jon Maia

## Carlow-en egon direnen esperientzia

HILABETE CARLOW-EN egon ondoren, berriro ere Zumaian gaude. Bizi izan dugun esperientzia positiboa izan da. Bakoitza familia batean egon gara eta pentsatzen genuena baino hobeto hartu gaituzte.

Hemendik ingeles maila baxu samarrarekin joan ginen, baina jendearekin harremanetan jartzeko ez dugu inolako eragozpenik izan.

Han gustura egon gara, baina herri-mina sentitu dugu Zumaiko giroaz akordatzeko ginelako. Izan ere, hango giro eta kultura hemengoaren oso ezberdinak dira. Carlow-eko eguneroko bizimodua honelakoa da: goizeko bederatzietarako lanera joaten ginen; lanetik aterata, ordubatak aldera, bazkalordua: sandwicha; ordubeteko atsedenaldiaren ondoren, bostak arte berriro ere lanera joan behar izaten genuen; ondoren, taberna batean denok elkartzen ginen zerbait hartu eta seietako afaltzera!!; ematen zigutena jan eta berriro kalera irteten ginen pinta batzuk edatera.

Asteburu iritsitakoan, berriz, Irlanda ezagutzera joan ginen: Belfast, Galway, Dublin...

Esperientzia hau "Leonardo Proiektua"-ren bidez egin ahal izan dugu. Proiektu honi esker, bidaia eta egonaldia ez ditugu ordaindu behar izan. Beraz, denok animatu nahi zaituztegu: honelako aukera bat suertatuz gero, alferrik pasatzen ez utzi. Guk, behintzat, denbora ederki aprobetxatu dugu eta!

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Zumaiko Institutuari proiektu hori aurrera eramateagatik. Mila esker.



# Tobi eta Alde Zaharra

TOBI "CALLE MARI"-ko nagusi zeneko garaiak aspaldikoak dira, bai, baina nire belaunaldiko zenbaitzuei, batez ere parroquia inguruan kozkortu zirenei, seguruenik gertatu zaien bezalaxe, ni ere bat-batean txakur beltz hartaz gogoratu naiz herriko Alde Zaharra indarberritu nahi dutela irakurri dudanean. Beltza? Egia esan, ez nuen Tobi sekula hurbiletik ikusi, haren lehen zaunka berezia sumatu orduko, soka saltoa, futbola, kromoak, patinak, pilota partida edo "pote-pote"-a ziztu bizian utzi eta etxeko tinbrea etengabean joka bainengoen arnasestuka. Arnasestuka eta "Ama, atea ireki azkar!", oihukatuz. Gutxienez ordu erdi pasatxo behar izaten nuen masaila gorriak baretu eta berriz ere eliz atarira jaisteko. Erabat lasai inoiz ez, hala ere. Horrexegatik oraindik ere miresten ditut Sorazuko litro erdi eskaseko limoizko Schuss botila lortzearren "Calle Mari" punta batetik bestera zeharkatzera ausartzen zirenak. Apustu garestia, alajaina!

Sanjuan iturri aldera ere begiratu dut herriko Alde Zaharra itxuraz aldatu nahi dutela jakin dudanean. Isilik dago. Jolas ega-

rriz, nonbait. Edo, akaso, jolasek eragindako egarria berriz ere asetzeko esperantzarekin. Batek daki.

Sorazu parean ez dago gomazko karamelo-makinarik, baloirik ez da erortzen Mari Carmenen lorategira, ezta Serafinen bulegora, "labaderora" eta Motos Diazera ere; Elenak ez dio inori mesedez eskatzen kontuz ibiltzeko pilotak dendako kristala puskatu ez dezan; Konpitzozaharreneko eskapareateak aspaldi itxi zituzten betiko, Kontxik ez dizkio inori bost duro ematen Kooperatibatik kilo bat patata ekartzeagatik; parrokoaren "emakumeak" ez du "ez horrelako hitz itsuririk esan" oihukatzen apaizen etxeko leihoko pertsiaren atzetik; eliz atarian inork ez du futbol partida bat "alto" esanez mozten harrizko zelai erditik norbait pasatzen denean...

Eta Tobi, jakina, aspaldi hil zen.



Eguzki Agirrezabalaga



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak  
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



## Ite missa est

Karmelo Arroiabe



San Telmo martxaren doinuen erritmoa nolabait dantzatzuz, masta beherantz dator, astiro-astiro, Kofradiako bandera. Jendetza bildu da inguruan. Besoak gorantz luzatuz, zapia eskuartean astinduz, jaien bukaeraren testigu zuzena izan nahi dute. Euren begiekien ikusi arte, 2004ko santelmoak bukatu direnik sinetsi nahiko ez balute bezala; azken segundora arte gozatzuz. Izan ere, hauek jai ederrak dira benetan, bai. Adin guztietako jendea ikusi dut irribarretsu eta pozik kalean zehar. Oraintxe txaranga bat hemen, oraintxe beste bat han, ez da ez musika, zarata eta alaitasun faltarik izan. Egia esan, ez dugu programazio eta ikuskizun izugarririk behar, jaiak ondo pasatzeko. Gehienok, tabernatik tabernara eta alkoholaren bultzadatzarekin, poliki-poliki ikuskizunaren aktore zuzenak izaten bukatzen dugu. Batzuek besteek baino hobeto hartzen diote neurria, baina zer egingo diogu, ba. Gaur-gaurkoz, alkoholik gabeko festarik ez dut ezagutzen. Historian zehar ere, ospakizun gehienak haren inguruan eman dira. Seguru aski zerbaiten beharra dugu gure egunerokoan daramazkigun defentsak desegiteko, eta ezkutuan dagoen NIa azaleratzeko. Alkohola, bere neurrian, elementu laguntzaile bat izan daiteke, baina gehiago ere egongo dira. Jaietako buruzko azterketa antropologikoari edo antzeko zerbaiti oso interesgarria deritzot eta, zer esanik ez, santelmoei buruz, zeren eta, askori entzun diot, eta ni ere ados nator esatean, santelmoak zerbait berezia dutela. Beste jaiak, sanpedroek, adibidez, sortzen ez duten zirrara sentiitzen da santelmoetan; herrikoia eta mitikoagoa, agian. Prozesio berak bakarrik mereziko luke azterketa bat; ez al zaik hala iruditzen, Gorka?

## Habemus kofradia!

Gorka Ormazuri



Egia esan, ni ez nauk inoiz goiz-txoria izan eta, ondorioz, santelmoetako prozesioa bizitzeko aukera handirik ez diat izan. Gainera, bititu dudanetan gautxori moduan izan duk; txio-txioka berandu egin, nahigabe, noski, eta Anaden (bazekiat ez dela txori bizi batentzat lekuri aproposena, ez) gosalduta joan ninduan konpainia ezin hobean hain gau zoroaren aitzakia eskaini zigun santua agurtzera. Ai, San Telmo, San Telmo! Zenbat parranda eta festa bere aitzakian. Dena dela, aurtengoan ez diat aukera handirik izan santelmoak bete-betea gozatzeko. Irtsiko dituk, bai, urte hobeak, baina egia duk santelmoak barru-barruan bizitzen diren festak direla (nik esango nitek Zumaian honela bizitzen diren bakarrak) eta, bat edo bestean huts egin arren, beti dauk hor, aurrean, urdin kolorearekin zirikatzen. Bai, hala duk: oinarrizko kontu bat, sentimendu bat, pentsamendu arrazionaletik kanpo dagoena, baina... bizi-bizia. Sentimendu izate horrek ematen ziotek indar berezia santelmoei eta, gainera, herria elkartzeko aitzakiarik koloretsuena bera duk, dudarik gabe. Hik, Karmelo, prozesioa aipatu duk, baina Kofradiako dantzaldiek ere (Gelaxorenak izugarriak ziren!) ez ditek leku txikia eta desagertuko balira santelmoek ere zati handi bat galduko liketek. Ez al zaik hala iruditzen, Epi?

## Ota otae

Xabier Aizpurua



Erromeya, prozesiyua, kalejira eta gaupasak... oraindik ere santelmoekin bueltaka? Arroiabe eta Hormazuri, nostalgiko hutsak eginda zaudete, saudadez gainezka dabilen bikotea. Nik ez dizuet hitz egingo Telmoren urdintasunaz, edo Pedroren ximeltasunaz. Gaiaz erabat mudatzeko gogoia etorri zait, hotmaileko atari honen aurrean. Aizue, konturatu al zarete azkenaldian ibai ondoan egin dituzten berriztatze lanekin? Hasteko, bada koska bat, zubi txikiaren bukaeran, diagonaliki jarria, grazia zipitzik ere egiten ez didana. Abiadura jaiste gaiza bat da, eta bestea bizkarrezurrak (autoarena eta gurea) zartatzea. Zuzen jarri izan balute, behintzat!!! Beste behin ere erakutsi dute besteak

zuzentzea gehiago gustatzen zaiela, beraiek zuzen ibiltzea baino. Eta jarraian, behin moilara iritsita, galipot ilun ederrez estali dute dena, txukun-txukun. Baina non daude marra zuri perpendikular eta paraleloak? Aparkalekuak markatu gabe oraindik, ez al diozue usain arraroa hartzen? Ez prezixoki lazun eta moila bazterreko ur narratsen "perfumea"... Badakizue, oiloko ere lotan daudenean, kotan egoten dira, hura dute beren logela. Gure autoak moila bazterrean lokartzerakoan ere, berdin bukatuko dutena beldur naiz: OTAtuta. Latineko klaseetan piper egiten nuen, eta lehen deklinabidean geratu nintzen. Badakizue, zera... OTA-OTAE. Mxx.

# Patxi Saizen galderak

AITOR MANTEROLA

**Zumaian bizi den musikari getariar-  
rrak "Galdetzen" izeneko diskoa  
atera zuen iaz, eta maiatzaren 21ean  
Zumaian abestuko du**

Hausnarketaren ondorio izaten omen dira galderak, eta Patxi Saiz kantariak bakarka atera duen diskoak galderak ditu oinarri. Era guztietakoak dira Zumaian bizi den getariararen kez-  
kak eta egonezinak, eta horiek guztiak "Galdetzen" izeneko diskoan plazaratu ditu. Diskoaren izenburua Jokin Urain euskal preso politikoaren olerki batetik hartu zuen Saizek. Olerki horretako eduki nagusiak Saizek berak laburtzen dizkigu: "Kartzelatik preso zergatik dagoen galdetzen du, bere nahigabea azaltzeko". Olerkia musikatu, eta diskoan sartu du getariarrak. Horixe du, hain zuzen, abesti kuttunena.

Hari horri tiraka, Euskal Herriko beste hainbat gai jorratu ditu diskoan: erbestea, herrimina, euskara, Euskal Herria bera... Patxi Saizi kezka eragiten diotenak guztiak ere: "euskaldunok bete-betean hartzen gaituzten gaiak dira, baina nire helburua ez da arazo-  
ak konpontzea, nire esku ez dagoelako; nire nahia entzuleei pentsaraztea da". Diskoan barneratuta, gizarteko



beste hainbat arazo ere aurki daitezke: maitasuna, haurtzarora eta askatasuna. Lepo gaineko ganbarari buelta asko eman ondoren sortutako kezkek direla esan digu Saizek. Dena den, diskoko letra asko Iparraldeko idazleenak dira. Elissanbururenak, Manex Erdozaintzirenak eta Etxahun Irurikorenak aurki daitezke "Galdetzen" diskoan. Aspaldiko ohitura du hori Saizek, eta musika munduan dabilen 20 bat urteetan Iparralderako joera izan du: "Ez daukat aparteko motiborik Iparraldeko idazleen testuak aukeratzeko; haien kantatzeko modua gustatzen zaidalako aukeratzen ditut".

**Zumaian, maiatzaren 21ean**  
Patxi Saizen galderak eta kezkek zehatz-mehatz ezagutzeko aukera maiatzaren 21ean izango dugu zumaiarrok. 22:30ean hasita, Aita Mari aretoan entzun ahal izango dira "Galdetzen" diskoko abestiak. Getariar-  
aren aurreko ibilbidea biltzen duen disko horrekin gozatzeko aukera izango da, eta akaso, etorkizunean atera nahiko lukeen diskorako prestatuta dituen kantak ere eskainiko ditu. Kontzertua-  
ren ondoren, entzuleak pentsatu eta hausnartzeko gogoarekin badaude, Patxi Saizen helburuetako bat beteta loko.

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

**Maite**  
ileapaindegia

**Malaur**

ert  
informatika

tresna digi-  
internet  
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95

**DALAC**  
COMPUTER

ze berri?

# Unai Gijarro bertsotan txapeldun

XABIER AZKUE

Dozena bat urteko tartea egon eta gero, aurten berriz ere jokatu da Zumaiako bertsolari txapelketa Anade elkarte-an. Txapela Unai Gijarro irabazi zuen, 220 puntu metatu eta gero. Bigarren Maialen Velarde geratu zen, neska bakarra, 214rekin. Hirugarren Markel Peñalba izan zen eta laugarren Felix Aizpuru, taldeko beteranoa.

Anade ia leporaino bete zen apirilaren 23an eta jendeak asko lagundu zuen giro sortzen. Ordaina, berriz, afalondan txapelketa eta saio polit bat ikusi eta entzutea izan zen. Hamaika protagonista, ia denak oso gazteak. Neska bakarra, Maialen Velarde, Maddi Gallastegi Galizian zelako beste txapelketa bat jokatzeko, bateletakoa hain zuzen. Jon Maia aurkezle zela, agurraz gain launa bertso puntugarri abestu zituzten lehen fasean.

Ofizioka eta aurrerago ere gai gehienak santelmoen ingurukoak izan ziren. Lanik politenetako bat Unai eta Maialenekin egin zuten, zortziko handian. Unai, aita, txosnetara azaldu eta barraren bestaldean alaba, Maialen, egokitu zaio zerbitzen.

Unai

*...aizu alaba mesedez orain  
esatezunakin kontu  
paga haundia jaso nahi baezu  
hau amari ez kontatu*



Maialen

*Aita gauetan ze ibiltzen zeran  
amak badaki soberan  
eta gainera ez da egongo  
arrazoi gutxin galeran  
Orain tratua nahi baldin baezu  
nik esan didazun eran  
barra atzera pasatu eta  
zuk zerbitu ta nik edan*

Bakarka egin zen hurrengo saioa eta bi ariketa egin behar zituzten: lau oinak emanda bertsoa abestu eta hitza emanda beste bat. Oinekin abestutakoaren artean Oihan Iribarrena izan zen txalotuena, agurretatik hasita anaia Urtzirekin batera garbi adierazi baitzuten ez direla olagarrozaleak:

*Anaden afaltzeko  
zer nolako TROPA  
eta eskas-eskasa  
zegoen gaur ZOPA  
Hori kontuan hartuta  
har zazute NOTA  
errespetuagatik  
ez dedala BOTA*

Felix Aizpuruak ere ale ederra bota zuen, hitza BIHOTZA zuela:

*Honek sarritan nabaritzen du  
kanpotik datorren poza  
nahiz ta batzutan maitasunean  
agian dabilen motza  
edo bestalde horren errudun  
izan ote leike lotsa  
baina orain ez dut hotza  
hor entzutean ahotsa (bis)  
ta bertsoekin barrenetikan*



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE. z/g  
TEL: 943 865369

*berak egiten du goza  
berrehun ta hogeitik pasata dabil  
gaurkoan nere bihotza (bis)*

Laukote batek bakarrik egin zuen aurrera, baina aipatu beharra dago puntu soil batera hurrengo faserako atarian geratu zirela Gorka eta Oihan Iribar anaiak. Oro har urduritasuna gehiago nabaritu zen bigarren fasean.



Ofizioka zortziko txikian aritu ziren lehenbizi. Markel aitak telefono mugikorra oparitu dio Maialen alabari eta hau parrandan dabilela egin dio lehen deia:

Markel

*...ta gauza bat diotsut  
Maialen gainera  
ordu bi t'erditako  
buelatu etxera*

Maialen

*Jo, festetan beti're  
ze plasta den aita  
goizeko ordu bitan  
neri jotzen gaita  
orain etxeako ordua  
ez zaidazu aipa  
bestela saldoik gabe  
geratuko baita*

unai gijarro

## "Ez nuen inola ere espero irabaztea"

### Zer esperantzarekin joan zinen Anadera?

Helburua ez zen irabaztea. Ondo geratzera joan nintzen, trabatu gabe kantatuta, txispadun bertso bat edo beste botatzera. Bigarren fasera pasatzeko ez nengoen seguru, baina gustura geratu nintzen lehenengo fasean egindako lanarekin. Kartzelako lanaren ondoren ez nuen espero irabaztea, gaia emanda lan kaskarra egin nuelako.

### Ofizioka ala bakarka, nola aritu zinen erosoago?

Ofizioka gusturago, Felix eta Maialenekin saio politikak egin nituen.

### Kantatzen azkar hastea, berezkoa duzu ala estrategia bat izan da?

Hala egin al nuen? Nahi gabeko kontua da. Puntuari erantzuteko, behintzat, horrela egin behar dela iruditzen zait.

### Aurrerantzean jarraitzeko asmoa duzu?

Txapelketarako astean behin elkartzen aritu gara taldetxo bat eta oraingoz horrelaxe segitzea espero dugu, giro polita daukagu eta.

Kartzelako lana bi punturi entzun eta gai bati abestea izan zen, baina guztiak ere oso urduri ibili ziren eta ez zuten batere gozatu.

Epaimahaiaren txanda izan zen eta honakoa erabaki zuten Imanol Lazkano, Josu Garate eta Jexus Lafuentek, Ibon Aizpurua idazkari zutela: txapela, trofeoa eta 300 euro Unai Gijarri ematea eta trofeoa eta 150 euro Maialen Velarderi. Entzuleek beste sari bat emateko aukera izan zuten eta haiek ere Unai Gijarro hautatu zuten, Maialen bera ere saritik oso gertu izan zen arren.

Ea datozen urteetan antzeko saioekin gozatzen jarraitzeko aukera badaukagun!

ad

**AUTOS  
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

*Kresala*  
Taberna

Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK  
**OSTOLAZA**  
ARozTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325



# Haurtzaindegia sortzera doaz

*Egunotan haurtzaindegien gaia guraso askoren ahotan dabilen kontua da. Bestetik, lanera joan behar eta haurrak noren esku utzi ez dakitela dabilzanak ere ez dira gutxi. Irailetik aurrera, ordea, Zumaiian izango da nora eraman. Izan ere, datorren ikasturtean Haur Eskola izango da zabalik*



ITSASO IBARRA

**U**DALAK MARTXOAN egindako bilkuran erabaki zuten Haur Eskolen Partzuergoan sartzea. Partzuergoan sartzearen ondorio zuzena da herrian haurtzaindegi publikoa sortu ahal izatea. Horrela, Udalak herrian dagoen behar bati erantzuna emango dio. Izan ere, geroz eta gehiago dira lan egiten duten bikoteak eta familia horiek haurrentzako zerbitzuren bat beharrezkoa dute.

Zumaiako Herri Eskolak behar hau betetzeko zerbitzua ematen jardun du pasa diren sei urteotan. Herrian zegoen demanda bati erantzuna emateko jarri zuten abian urtebe-

teko haurren gela. Horrela, Hezkuntza Sailaren laguntzarik jaso gabe, beraien baliabideekin eta guraso elkartearen laguntza handiarekin lortu dute aurrera eramatea. Gela horrek izan duen arrakasta nabaria izan da; izan ere, kopuru mugatua dela eta, urte batzuetan haurrak kanpoan geratu izan dira. Aurten 20 ume dituzte. Irailetik aurrera, berriz, urtebetekoen gelaz Udala arduratuko da.

Haur Eskola hau Eusko Jaurlaritzak eta Udalak osutako partzuergo publiko batek kudeatuko du. Udalaren ardura izango da lokala jartzea eta eskola hornitzea eta garbitzea. Bestetik, Jaurlaritzak ordainduko du oinarritzko materiala. Langileak kontratatzeaz, berriz, Partzuergoa arduratuko da.

Haurtzaindegiak gainontzeko eskolekiko izango du berezitasunik. Eskolaren ordutegia eta egutegia ez dira ohi-koak izango. Haur eskolak goizeko 07:30ean zabalduko ditu atea eta arratsaldeko 18:30ak arte egongo da zabalik. Hala ere, Partzuergoak zehazten duenez, haurra ezin izango da eskolan zortzi ordutik gora eduki. Egutegiari dagokionez, haurtzaindegiak abuztuan bakarrik itxiko ditu atea.

Haur eskolen barne 0-3 urte bitarteko haurren hezkuntza bermatzea aurreikusten da. Hala ere, 2004-2005 ikasturtean urtebetekoen gela bakarra zabalduko da. Izan ere, Udalak ez dauka garbi zerbitzu honek zein erantzun izango duen, Maria eta Jose ikastetxean ere zerbitzu hau eskaintzen baitute. Ondorioz, gela bakarra zabalduko da eta 13 haurrek bakarrik izango dute haur eskolan sartzeko aukera. Kopuru hori baita Partzuergoak onartzen duena.

Gela hau, oraingoz, Zumaiako Herri Eskolaren barruan kokatuko da. Herri eskolako zuzendariak dioenez, "Guk Udalarari beste leku batean izatea proposatu genion. Baina, besterik ez badago, hemen jarraitu beharko du".

Ikastetxe pribatuan, urtebetekoen gela goizeko 08:00etatik arratsaldeko 18:00ak bitartean dago zabalik. Dekretuak zehazten duen moduan, haurrak ezin ditu zortzi ordu baino gehiago egin bertan, eta gurasoei dagokie komeni zaien ordutegia hautatzea. Bestetik, uztailean zabalik dago eta opporraldian jaiegunetan bakarrik ixten dituzte atea.

Kostu ekonomikoei dagokionez, Partzuergoak langileen gastuen %60 hartuko du bere gain. Gainontzeko %40a, aldiz, gurasoek ordainduko dute. Horrela, haurra haurtzaindegian lau ordutik gora uzten dutenek 180 euro ordaindu beharko dituzte. Lau ordutik behera izanez gero, 135 euro hilean. Ordaindu beharreko kopuru hau gutxiago izan daiteke gurasoei emango zaizkien diru laguntza edo beka direla medio. Maria eta Jose ikastetxean, berriz, urtebeteko gelan haurra zortzi orduz izanez gero 50 euro ordainduko dira, eta lau orduz izanez gero, 40 euro.

Zumaiako ikastetxeek jarrera baikorra azaldu dute haur eskolaren sorreraren inguruan. Maria eta Jose ikastetxeeko zuzendariak dioenez, "Eskaintzak egon behar du, eta zenbat eta gehiago egon, herriaren ikuspuntutik ikusita, herriaren-



## HAURTZAINDEGIAREN EZAUGARRIAK

**Ordutegia:** 07:30etik 18:30era (ezin izango da 8 ordutik gora haurra bertan eduki)

**Egutegia:** abuztuan bakarrik itxiko da

**Prezioak:**

4 ordutik gora, 180 euro hilean

4 ordutik behera, 135 euro hilean

**Matrikula:**

Udaletxean maiatzaren 17tik 28ra

tzat askoz hobeto". ZHEko zuzendariak azaldu duenez, "Haur eskolen partzuergoan sartu izana aukera bakarra iruditzen zait Zumaiako haurtzaindegi publiko edo haur eskola bat izateko".

### Matrikula epeak

Urtebeteko haurra haur eskolara eraman nahi duten gurasoek maiatzaren 17tik 28ra bitartean egin beharko dute matrikula. Izena emateko tramiteak Udaletxean bertan egingo dira. Gainera, maiatzaren 10etik aurrera izango da haur eskolaren gaineko informazioa bertan jasotzeko aukera. Partzuergoa arduratuko da haur eskolan zein haur sartuko diren erabakitzeaz.

  
gofi  
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School  
**Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

## "Gure asmoa haur eskola munizipala egitea da"

### Zer dela eta erabaki du Udaletxeak Haur eskolen Partzuergoan sartzea? Zein helbururekin?

Guk badakigu herrian haurtzaindegi baten beharra dagoela. Gero eta jende gehiago bizi gara, aurrera goaz eta haur gehiago daude eta horri erantzun egin behar diogu. Eusko Jaurlaritzak 0-2 zikloa antolatu zuenean, pentsatu genuen positiboa izan zitekeela herriarentzat. Gure zalantzak izan genituen hasieran, baina horiek erantzun ondoren pentsatzen dugu herriarentzat aurrerapausoa dela haurtzaindegi publikoa eskaintzea.

### Zein onura dakartzta herrian Haur Eskola izateak?

Gaur egun familia gehienetan gizonak eta emakumeak, biek, lan egiten dute. Honelako eskaintzarekin haurrak gai haue-tan prestakuntza berezia duten irakasleekin egoten dira, egoki zainduta daude eta elkarrekin erlazionatzen dira. Uste dut positiboa dela umeak umeekin egotea.

### Zer da Haur eskolen Partzuergoa?

Partzuergoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Nekazaritza Sailek eta Euskal Herriko hainbat udalek osatzen dute. Kide izateko hitzarmena sinatu behar da eta entitate hauen artean konpromiso batzuk hartzen dira. Helburua da 0-2 urte bitarteko haur eskola publikoak sortzea eta kudeatzea da.

### Oraingoz urtebetekoen gela bakarra zabalduko da. Zergatik?

Herri Eskolan urtebeteko gela bat dago gaur egun 19 haurrekin, baina Hezkuntzak gela hau ez du onartzen eta Jaurlaritzak hori ixtea zihoala esan zigun, Partzuergoan sartzen ez baginen. Gure zalantzak genituen baiezkua eman baino lehen: non kokatu, zenbat gela, pertsonala, dirua... Partzuergoan sartzeak zer ekarriko zigun ez geneukan garbi. Haur eskola Partzuergoko buruekin bilera batzuk eduki ondoren, adierazi ziguten gurekin malguak izango zirela, kontuan izanda nolako egoera daukagun. Aurten, gela bat sartuko zutela adierazi ziguten, ikusteko zenbateko arrakasta duen. Behin hori eginda, Udalak ikusten badu zerbitzu hori positiboa dela eta jendeak behar duena dela, ahaleginduko gara ziklo guztia aurrera eramaten, eta baliabide guztiak jartzen 0-2 ziklo osoa Zumaian sare publikoan jartzeko. Ez dakigu eraikin berria beharko dugun, edo lokal baten jarriko den. Leku aproposena bilatuko dugu. Gure asmoa da zikloa bere osotasunean ezartzeko prozesuan sartzea.



"Ideala izango  
litzateke bi  
ikastetxeetatik  
kanpo ematea  
zerbitzu hori"

**Partzuergoko ratioak dioenez, gela horretan 13 haur sartuko dira. Gehiagok izena emango balute, zer egingo litzateke?**

**ilargi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak:  
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsiarik
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua  
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

**EGOKI**

Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



## “Herriarentzat aurrerapausoa da hartzaindegi publikoa eskaintzea

Haurrak aukeratzeko indize batzuk daude eta balorazio batzuk. Baina hori dena Partzuergoak eramaten du. Guri beraiek esango digute zein sartzen diren eta zein ez. Hori

Partzuergoaren erabakia da. Udalak matrikulazio kanpaina egingo du, maiatzaren 17tik 28ra irekiko da, eta Udalean izena emango beharko dute irailean haurrak haur eskolara eraman nahi dituzten gurasoek.

### Zer dela eta zabalduko da gela Zumaiako Herri Eskolan?

Guk pentsatzen dugu gauza onena herriari eskaintza bakarra ematea dela. Ideala litzateke bi ikastetxeetatik kanpo ematea zerbitzu hori. Gaur egun, Maria eta Jose ikastetxeak bere eskaintza ematen du eta urtebetekoen gela martxan dauka.

Julene Azpeitiako eraikinean kokatu da gela hau, lokal hauek publikoak direlako eta era berean gaur egun martxan dagoena itxitakoan gela hori erabil dezakegulako.

Kokapena ez da ideala, baina nahiz eta gure asmoa bi eskoletatik kanpo jartzea izan, gaur egun aukera hori ez daukagu. Horrek ez du esan nahi etorkizunean haur eskola bakarra edukitzeko ahaleginak egingo ditugunik. Gure asmoa haur eskola munizipala egitea da, eta 0-2 zikloaren ondoren norberak erabakitzea zein ikastetxetara eraman haurra. Baina hasiera bakarra izatea da gure nahia.

### Noiz aurreikusten duzue zerbitzu guztia eskaintzea?

Aurten lehenengo pausoa eman dugu, Eusko Jaurlaritzak gurekin malgutasunez jokatu du eta onartu digu pixkanaka prozedura honetan sartzeko erabakia. Gero nolako erantzuna duen ikusita, beste pauso batzuk emango ditugu.



**ALBAITARITZA  
KLINIKAK**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

**-ALBAITARIAK-**

astegunetan: 16:30-20:00  
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behe  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14  
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés  
french  
euskara  
englantia  
espagnol  
catalonian  
suomi basc  
catala finnois  
français anglais  
catalán française  
castellano finnish  
inglés baski catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L



**ALGORRI TABERNA**  
ERRIBERA, 1 - JUNIAI 943 862543



**TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK**  
ERRIBERA, 8 943 861694

**AROZTEGIA**  
**Urola 2000, s.l.**

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

**ERROTA**  
**OPIL-OKINDEGIA**

# Iazko txapeldunen bertsoak

**M**addi, Maialen eta Markel (hiru m) izan genuen iaz Zumaiara txapela ekarri zigun bertsolari hirukotea. Iazko ekainean Lazkaon jokaturako Gipuzkoako eskolarteko 23. txapelketa gogoangarrian hirurek bat-batean kantatu zituztenak dakartzagu gaurkoan. Merezki dute eta gure herriko etxe guztietan gorde ditzagun urte askotan.



Zumaiako Bertso Eskola

**Markelek lau oinak emanda.**

**Doinua: Bautista Bazterretxe**

-I-

*Gu etorri gerade  
behar zen lekura  
saioa aurrera doa (bis)  
hau abiadura!  
txapelerako ez dut  
inolaz ardura  
saioa irtengo da (bis)  
dakigun modura.*

Andoni Egañak gai hauxe eman zion Maddi-Maialen bikoteari: "Gimnasia eritmorako dohain onak omen dauzkazue, goi mailara iristeko modukoak. Entrenamenduak egiteko egutegia ere aurkeztu dizue irakasleak. Egunero zortzi orduko lan ariketak, jan-edanari buruz dieta berezia, asteburutan egun osoko kontzentrazioak... Erantzuna emateko epea oraintxe amaitzen da".

Hamarreko handian, "Santa Barbara zure bizitza II" izeneko doinuan honela kantatu zuten gure bi ordezkari gaztetxoek.

## **Maialenek**

*Amets eder bat lortzeak zenbat  
arazo beti dakartzan  
eta gaurkoan beharko degu  
baietz edo ezetz esan  
dena datorkit niri gainera  
dena dator abiadan  
ta famosoa izateko ere  
aukera ezin det jasan  
ametsa gustoko den tokian  
ezin da aldarrik izan. (bis)*

## **Maddik**

*Astelehenero joaten nintzen  
ni gimnasio aldera  
entrenatuaz oso pozikan  
bost lagunekin batera  
baina gero hor sartua nintzen  
txapelketa askon artera  
dela jauzia, dela brinkoa  
salto batetik bestera  
onartu beharra daukat oraintxe  
ezin det galdu aukera. (bis)*

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN  
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAI A

Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxe: 943-143057  
Z U M A I A

www.ekin.com

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK  
TELEKOMUNIKAZIOAK

/eletrizitate.a.s.l.

Erribera kalea 18 Behe Tel./fax:943 143097  
20.750 Zumai a ckims@ekinl.com

Istaltzaile/banaltzaile ofiziala

CANAL+ Vía CANAL DIGITAL

Telebés

Movistar

Movistar

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

## Nora bidaiatu nahi duzu?

**U**dako oporretarako hilabete batzuk falta diren arren, jende askok garai honetan planifikatzen ditu, eta horretarako Internet-ek sekulako aukera eskaintzen digu, munduko edozein herrialdetako informazioa topa baitezakegu bertan. Aurki dezakegun informazio solteaz gain, badaude hainbat webgune bidaiatzeko eta bidaia prestatzeko informazioa eskaintzen dutenak. Webgune horietako gehienek, lehen, bidaiatzeko gidaliburuak argitaratzen zituzten; gaur egun ere horretan jarraitzeaz gain, Internet-en ere eskaintzen dute informazio hori.



Ibon Aizpurua  
Informatika  
ingeniaria

Ezinbesteko bisita merezi duen webgune bat Lonely Planet argitaletxearena da; bertan, gidaliburuak saltzeaz gain, informazio gehigarri asko topa daiteke, esate baterako World Guide edo Munduko Gida deritzona. Atal honetan, munduko edozein herrialde aukeratuta, bertara bidaiatzeko ezinbesteko informazioa eskaintzen du: herrialdearen datuak, historia, erabiltzen den diru mota, egin daitezkeen ekintzak, galdu ezin diren tokiak, e.a.

Eskaintzen den beste zerbitzu bat bidaiarien komunitatearena da; bertan, bidaiariak beraien informazioa truka dezakete, bisitatutako tokiren bateko iritzia, bidaidea bilatzeko aukera eta beste hainbat gauza. Beste atal interesgarri bat bidaiarien osasunari buruzkoa da.

Bada beste webgune berezi bat ere. Bertan, jendeak bidaietan ezagutu dituen herriez zerbait komentatzen du; edota norbaitek herriren bati buruzko informazioa nahi baldin badu, herri horretako beste norbaitek bere burua eskaintzen du, argibideak emateko. TravellersPoint du izena eta bertan herrialde askotako jendea topa daiteke laguntzeko prest.

Lonely Planet  
<http://www.lonelyplanet.com>

Travellers point  
<http://www.travellerspoint.com>

## Txipiroien eta garbantzuzaldaren eltzekaria

**O**SAGAIAK,  
4 lagunentzat:

- 1/4 kg garbantzuz.
- 2 tipula.
- 1 azenario.
- 1 porru.
- 1 baratxuri ale.
- 1/2 kg txipiroi.
- 1 piper berde.
- 8 koilarakada saltsa beltz.



### Nola prestatu:

Lapiko altu batean jarri egosten, ur askotan, garbantzuzak, tipula, azenarioa, porrua eta baratxuria. Egositakoan, atera garbantzuz ale batzuk eta geroko gorde; gainerakoekin egin pure fina.

Moztu txipiroiak, piper berdeak eta tipula laukitxoetan, eta salteatu guztiak elkarrekin.

### Nola aurkeztu:

Jarri koilarakada bat garbantzuz pure, plateraren gainean zabal-zabal; horren gainean, txipiroi salteatuak, tipulekin eta piperrakin; jarri bueltan-bueltan, lodi-lodi, saltsa beltza. Apaintzeko, ipini garbantzuz ale batzuk.

On egin!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui  
Abokatu + Aseguruak  
Finan Administrazioa

bonin aguirre 4. behe  
20.750 zuzkila (guzkoa)  
E-mail: rjazcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax. 943 862748



\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Erropa garbiketeta eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

# Zumaiakoko jubenilek Ohorezko mailarako igoera lortu dute

**98-99. denboraldian jokatu zuen azkenekoz Zumaiakok Ohorezko maila honetan**

MAITANE URBIETA

Denboraldi bikaina osatu dute aurtengoan Zumaiakoko gazteek. Izan ere, liga amaitzeko 5 partiduren faltan, datoren urtean Ohorezko mailan jokatzeko txartela lortu dute. Kalkulua erraza da: 5 partiduren faltan 15 puntu daude jokoan eta Zumaiakoko gazteek 16 puntuko aldea ateratzen zioten sailkapeneko bigarren taldeari.

Denok uste baino errazago lortu dute igoera gazteek, baina norgehiagoka askotan aurrean zuten taldearekiko erakutsi duten nagusitasuna nabarmena izan da. Jokatu dituzten 31 partiduetatik 27 irabazi, 3 berdindu eta bakarra galdu dute. Galdutako partidu bakar hori, gainera, igoera lortuta zegoela iritsi zen eta kontuan eduki behar da garai horretan santelmoak zirela eta horrek ere, neurri batean, behintzat, bere eragina izango zuela.

31 jardunalditan 137 gol lortu dituzte etxekoek. Horrek esan nahi du, batez beste, partiduko 4 gol baino gehiago sartu dituztela "gorritxoek". Lehen aipatu bezala, nor-

gehiagoka askotan nagusitasun nabarmena erakutsi dute eta hori partidu askoren emaitzetan islatu da.

Mariaren Bihotza taldearen aurka etxean jokatutako partiduan, adibidez, 10-0 irabazi zuten. Amara Berriren aurka etxetik kanpo jokatu zutenean, berriz, 0-7 gailendu ziren. Eta jokatu duten azken partiduan 20 gol sartu dizkiote Gure Txokoa taldeari, aurka gol bat bera ere jaso gabe.

Ezbairik gabe, aparteko denboraldia egin dute Zumaiakoko gazteek. 15 jokalarik osatu dute taldea, lan talde nahiko laburra edozein ezbehar gertatuz gero, baina hamabostak oso ongi prestatuak.

Fisikoki oso ongi daudela erakutsi dute eta joko aldetik, berriz, zoragarri jokatzen aritu dira. Denboraldi honetan izandako arrakasta, neurri handi batean, entrenatzaileak, Felipe Garmendiak, egindako lanaren ondorio da, baina bada garrantzitsuagoa edo indar handiagoa duen beste arrazoi bat: jokalariek euren artean eta entrenatzailearekin duten harremana. Esan daiteke lan talde bat baino gehiago lagun taldea osatzen dutela.

Denok uste baino  
errazago lortu  
dute igoera



## felipe garmendia entrenatzailea

### “Denok bat eginda egon gara eta hori izan da gakoa”

#### Denboraldi hasieran mailaz igotzea al zen zuen helburua?

Bai, bai dudarik gabe. Hori niri direktibak argi esan zidan. Mailaz igotzea zen gure helburua.

#### Horrelako erraztasunarekin igotzea pentsatzen al zenuen?

Nik uste baino errazago igo gara. Nik pentsatzen nuen arazo gehiago edukiko genituela. Gainera, lan talde motza daukagu, baina jokalarien portaera nahiko ona izan da. Hala ere, uste baino lehenago lortu dugu igoera.

#### Hainbesteko aldea ateratzen al diozue gainontzeko taldeei joko mailan? Zeren ondorio izan daiteke?

Nik pentsatzen dut beste taldeek ere lan asko egin dutela, baina guk, akaso, lan asko egin dugu, baina besteak baino hobeto. Nik uste dut guk osatu dugula talde bat oso joko definituarekin. Ni, gainera, entrenatzaile bezala, jokalariekin ondo moldatu naiz. Niretzat jokalariai basikoak ziren. Beraiek ere nirekin ondo, denok bat eginda egon gara. Eta hori izan da gakoa.

#### Datorren denboraldian jubenilak entrenatzen jarraitu behar al duzu?

Ba, ez dakit. Momentu honetan erregionalen titulua ateratzen ari



naiz eta denbora librerik ez daukat. Orduan, pixka bat erreta nago eta orain momentuan ez dut horretan pentsatzen. Ari naiz pentsatzen liga bukatu eta Antiguoko partiduan. Gero, udan, pentsatuko dut. Gainera, direktibak berak ere zer asmo duen ere ikusi beharko da, eta orduan hartuko dut erabakia.

#### Ez dakigu, beraz, datorren urtean jarraituko duzun ala ez. Baina zuk zer

#### moduz ikusten duzu talde hau datorren urtean Ohorezko mailan jokatzeke?

Nik uste dut lan ona egiten jarraituz gero, taldea badagoela lehenengo 6-8retan geratzeko. Kontua da nahiko talde motza dela eta orduan beste lau edo bost errefortzu beharko ditugu taldea osatzeko. Taldea jokalaria gutxirekin geratu da eta gero, gainera, 3 erregionaletara igoko dira. Kadeteetatik 3 jokalaria igoko dira, baina maila baxuagokoak, eta orduan errefortzuak beharko ditugula pentsatzen dut. Errefortzu batzuekin denboraldi oso ona egiten daitekeela uste dut.

## martin amilibia taldeko jokalaria

### “Igoera postuetan egon gara beti eta horrek ekipoaren animoa igo du”


#### Zer moduzko giroa dago zuen artean?

Ni Zumaiakon urte asko ere ez nabil, baina nik uste aurtengo giroa dela onenetakoa. Egon dira jokalariai batzuk giroa pixka bat aldatu dutenak, baina bestela jokalarien artean oso giro ona. Gainera, igoera postuetan egon gara beti eta horrek ekipoaren animoa betiere igo egiten du.

#### Partidu asko oso erraz irabazi dituzue. Horrelako aldea egongo zela pentsatzen al zenuten?

Ez, ez, ez. Lehengo urtean igotzea espero genuen. Aurtengoan baino talde hobea genuen, baina ezin izan genuen igo eta aurtur pentsatzen genuen zona lasai batean ibiltzea. Ez geneukan igotzeko asmorik, baina gero partiduak irabazten joan garen heinean konfiantza hartu dugu eta partidu asko erraz atera ditugu aurrera.

#### Nola ikusten duzu taldea datorren urtean Ohorezko mailan jokatzeke?



Nik uste dut ekipoa badagoela. Denboraldi bukaeran jokalariai gutxirekin geratu gara eta hurrengo urterako 18 jokalariai osatuz gero ondo ibiliko gara. Nire ustez, gakoa hor dago. Jokalariai osatzen bagara, goiko postuei begiratzeko aukera ikusten dut.

#### Zu taldeko “pitxitxia” zara, 40 golekin. Deskribatu nolako futbolaria zaren?

Ni ekipoako beste jokalariai bat gehiago naiz.

Sakrifikatu eta korrika egiten duen jokalariai.

Gero taldean badaude pase onak egiten dituzten jokalariai eta pase horietaz baliatuz golak sartzeko aprobetxatzen dut. Baina bestela ekipoako bat gehiago naiz.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058



# Neska «gaizto xamarrak» arraunean nagusi

JUAN LUIS ROMATET

Leire Antia, Irati Manzisidor, Maddi Gallastegi, Ainhoa Etxabe eta Ane Lopetegik (ahaztu gabe ordezeko lanetan aritu den Josune Herencia) osatutako 15 urteko neska talde batek lokartuta zegoen arraun zaletasuna berpiztu du udaberri honetan. Beren balentria zein izan den? Batel denboraldiko estropada denak irabazi eta etxera lau ikurrinarekin itzuli izana. Bejondeiela!

"Neska gaizto xamarrak dira, baina portatu dira", dio Goikok, pozaren pozez, denboraldian irabazi dituzten lau banderak aurrean dituela. Horien artean, erdi ezkutututa, Ferrolen irabazitako "piper potoa" dago. Espero ez zen bandera, Euskal Herrian dominatzaile argiak izan arren, inork gutxik uste baitzuen Espainiako txapelketa ere irabazteko gai izango zirenik.

Arrakasta handienak aurten lortu dituzte, baina dagoeneko hiru urte dira arraunean ari direla. Kontxako estropadan ikusi eta bizi izan zuten giroak, eta Iratik dioen bezala, egoskortasun puntu batek, bultzatu zituzten neskak kirol gogor honetara. Lehen urtetik hasi ziren onena ematen eta Gipuzkoako Liga irabazi zuten. Bigarren denboraldian Liga eta Gipuzkoako txapelketa irabazi zituzten, eta Euskadikoan txapeldunorde izan ziren.

Aurten, ordea, hasieratik dominatu dute. Entrenamenduak urriaren amaieran hasi zituzten Jabier Osa 'Saskate' entrenatzaile zutela. Orduak pasa zituzten korrika egiten. Gimnasioan ere makina bat denbora pasa zutela gogoratzen du Leirek, hasperen bate-



Dagoeneko hiru  
urte dira  
arraunean  
batera ari direla

kin. Gogor entrenatu dute eta hor egon daiteke, Goikoren ustez, denboraldi on honen sekretua. Horretaz gain, ondo ezagutzen dute elkar, eta hori ere garrantzitsua da.

Otsailaren 21ean jokatu zuten denboraldiko lehen estropada. Orduetik, Aste Santuan izan ezik, asteburuero lehiatu behar izan dute. Apirilaren

3an lortu zuten lehen ikurrina, Gipuzkoako Ligakoa, eta jarraian etorri dira besteak: apirilaren 4an, San Pedron, Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten; eta hilaren 18an, Sestaon, Euskadikoa. Egun horretan jaso zuten lehen errezibimendua. Bandera eskuetan zutela, eta Iratik dioen bezala "lotsa latzarekin, baina pozez gainezka", zeharkatu zuten Erribera kalea Kofradiara heldu arte. Zumaiarrek txalo zaparrada eskaini zieten balkoian bandera astintzen zutenean.

Euskadiko txapelketa irabazi izanak Espainiako txapelketarako lekua ziurtatu zien. Aurreko urtean, nahiz eta sailkapena lortu, ez ziren joan eta Oriok hartu zuen lekua. Aurtengoan ez dute aukera galdu nahi izan. Ostiralean

abiatu ziren Galiziarantz Zumaia, Orio eta Elantxobeko arraunlariez betetako autobus batean. Jende ugari joan zen beraiekin. Iratik gogoratzen duenez, bi lagunentzako lekua besterik ez zen geratzen autobusean.

Larunbat goizean jokatu zuten finale-rako saikatzeko estropada. Bigarren tandan hartu zuten parte Orio, Amegrove, San Pantaleon eta Vila de Cangaseko batelekin batera. Bere tanda irabazteaz gain, eguneko denbora onena lortu zuten, eta Astillerori segundo eta erdi atera zioten. Igandean, apirilaren 25ean, jokatu zen finala. Estropada hasteko segundo eskas falta zela arazoa: barruko kamisetak kolore desberdinetakoak zituzten. Epailea "un poco de disciplina" esaten hasi zitzaien; Iratik "pero si ya tengo la camiseta", erantzun zion, kanpoko kamisetaz ari zelakoan. Azkenean gauzak konpondu ziren eta finalari hasiera eman zitzaion. Estu, zeharo estu joan zen estropada. Helmugan 97 ehuneko besterik ez zen egon lehena eta bigarrenaren artean, baina beraiek txapeldun!



Estropada amaitu, "piper potoa" hartu eta presaka autobusera, herriko festen amaiera ikustera. Gaueko 11:00k inguruan heldu ziren herrira eta berriro ere pasakallea egin behar izan zuten. Oraingoan banderarik gabe... badaezpada ere. Kofradian jendetza, Aita Mari arraun elkarteko jendea malko zeriola, festa handia Zumaian. Santelmotako bandera jaisten ere lagundu zuten arraunlariek.

Batel denboraldia amaitu dute, eta orain aulki mugikorrarekin hasi dira. Ez

dute erraza izango ontzi berrira ohitzea, baina, hala ere, borrokarako gogoia ez zaie joan. Goikok estropada batean edo bestean parte hartuko dutela agindu behar izan die.

"Piper potoarekin" jarraituz, Aita Marikoez oraindik ez dakite zer egin berarekin, tela batekin kolore gorri eta horiak estali, ezkutua bakarrik agerian utzi... Banderak bedeinkatzeko eguna heltzen denerako aurkituko beharko dute konponbidea.

**GOIKO BODEGOIA**  
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861391

GIKIA 945447683

**INMOBILIARIA**

**Amaia**

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

**Antonio Etxabe**

*Gizonezkoen erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

**ZALLA**

**Taberna - Erretegia**

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

## luis mari goikoetxea "goiko" aita mari arraun elkarteko lehendakaria "Neska hauek egin dutena ez dago hobetzerik"

### Neskek egindako denboraldiak oroi- tzapen onak ekartzen dizkizu.

Bai, Telmo Deunak orain 20 urte egindako denboraldia ekartzen dit gogora, estropada denak irabazi zituenerako. Neska txiki hauek horixe egin dute, dena irabazi. Maila desberdina da, baina bere garrantzia dauka. Garrantzi gehiena duena dena irabaztea da, eta hori oso zaila da, betiere zerbait gertatu baitaiteke. Batek arraunean ondo ez egitea, ondoez bat... Hauek ez, hauek dena irabazi dute eta, gainera, lau ikurrina lortu dituzte. Hori ez dago hobetzerik.

### Espero al zenuten halako denboraldia egingo zutenik?

Ligillan ondo ari ziren eta denbora onak ari ziren lortzen, betiere bost minutu inguruan. Itxaropena, gainera, arraunlariek beraiek ematen zuten. Beraiei galdetu genien ea Espainiako txapelketara joan nahi zuten eta baietz esan zuten. Ferrolera joan eta han ere irabazi. Hori gogorra da!

### Zer asmorekin joan zineten Ferrolera?

Hara joanda podiumera igotzearekin gustura egongo ginen. Badakigu gali-ziarrak gogor aritzen direla. Beraiek ziren faboritoak. Eta azkenean alderantziz gertatu da, lehen biak euskaldu-



nak, Zumaia lehena eta Orio bigarren, segundo batera.

### Orain banku mugikorrean hasi behar omen dute neskek.

Bai, baina aurrena ontzi hauetan ibiltzen ikasi behar dute. Diferentea da, bi arraun erabili behar dituzte-eta. Itxuratzten badira txapelketa batera edo estropada batera eramango ditugu.

### Orokorrean, nola joan da batelen denboraldia?

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Gaizkien ibili direnak kadeteak izan

dira eta bosgarren sailkatu dira. Jubenilak eta infantilak maila onean aritu dira. Infantilekin ez genuen espero hain ondo arituko zirenik. Hasieran, arraunean ikastea kostatu egin zitzairen, baina azkenerako nahiko ondo ibili dira. Ligillan domina bat irabazi zuten eta probintzian laugarren izan ziren. Jubenilak hirugarren eta laugarren postuan aritu dira denboraldi osoan.

### Orain traineriletan ari zarete. Nola doa denboraldia?

Trainerilak ez ditugu landu aurreko urteetan bezala. Beste urteetan trainerila gehiago landu dugu, baina aurtengoan traineru denboraldiari eman diogu garrantzia. Orain, pixka bat jendea 'engrasatzen' ari gara, jakin dezaten estropadak zer diren. Oraingoz nahiko ondo doa. Lehen hamarretan bi ontzi sartu ditugu eta hirugarrena oso denbora gutxira dago.

### Zenbat arraunlarirekin zabiltzate lanean?

Entrenatzaileak ez du oraindik esan zenbatekin geratuko den, baina plantilan 22 arraunlari ditugu. Horiei orain gutxi hurbildu diren itziartar batzuk batu behar zaie. Denboraldirako nahiko arraunlari baditugu.

**Kresala**  
— edergintza —  
Amaiako Plaza  
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

**D'Ana**  
Steapaindegia  
Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

**BASUSTA**  
ERRETEGIA  
Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Txalaparta eta dantza gustoko badituzu...

Perkusio eta txalapartazale amorratua bazara...

Pa paraba pa pa...

# Ttakunpa!

HAIZE GALARRAGA

**T**takunpa taldeak maiatzaren 14an Aita Mari zineman bere lehenengo CDa aurkeztuko du, Zestoako Amalda Abesbatzaren laguntzaz. Benetan kontzertu interesgarria ikusteko aukera izango dugu. Erritmo afrikarrak, txalaparta hotsak, kantu goxoak eta dantza ikusgarriak ziurtaturik izango ditugu Zumaian.

Ttakunpa zortzi taldekidek osatzen dute eta tartean Uhin, Txintxi eta Juan Luis zumaiarrak aritzen dira djenbe, sanbagh eta antzeko tresna exotikoak astintzen. Taldeari buruz gehiago jakin beharrak bultzatu ninduen Zestoan duten entsegu lokalera joatera.

## Lokalean

Entsegurako tresnak prestatzen harripatu nituen ttakunpatarrak, guztiak nahiko pentsakor datozen kontzertuei buruzko hausnarketan; izan ere, erdi landurik zeukaten abesti bat bukatu nahi zuten lehenbailehen, emanaldietarako ondo prestatuta egon zedin. Ez da lan makala hainbeste perkusio tresna batera koordinatzea... bat, bi, hiru esan eta festa hasi zen. Uhin, Juan Luis eta Ane makila oker batzuekin danbor antzeko batzuk jotzen (geroago jakin nuen dum-dum-a, sanbagh-a eta kenkeni-a zirela), Txintxi eta Mikel eskuekin djenbe-ak berotzen, Aran eta Tzunye mikrofono aurrean abesteko prest



Baina lana ez da hor bukatzen. Musikaz aparte, beste zenbait xehetasunez arduratu behar dute; adibidez, Tzunyek kanta erdian abesteari utzi eta zitzu bizian txalaparta jotzera joan behar du, eta garaiz iristean eta bidean oztoporik ez egoteaz arduratu... Egundoko buruhaustea!

Dantzak ere entseguen parte dira, eta Ane eta Aranek, kankak jakiteaz aparte, koreografiak ere ikasi behar dituzte. Kontzertuak egiteko orduan afrikar dantza tradizioletako pausotatik abiatzen dira koreografia berriak sortzeko, eta ikuskizunari izugarritzko indarra ematen diote.

## Zortzi taldekideek osatzen dute Ttakunpa

maraka handi itxurako shekere-ei eragiten zieten bitartean, eta Kortxo, berriz, zuzendari lanetan txalaparta noiz sartuko pentsatzen. Giro aparta Zestoaldean. Bat-batean gelditu eta Mikelek aldaketaren bat gomendatu zuen, Juan Luisek erritmoa egokia ote zen planteatu eta bakoitza bere iritziak ematen hasi zen. Guztiek hartzen dute parte abestia egiterakoan, zortzi ikuspuntu desberdinek izugarritzko aberastasuna ematen diote taldeari, Ttakunpa talde bat baita, dudarik gabe.

### Bidaiak

Gure lehenengo galdera botatakoan konturatu ginen taldekideak gehiago direla musikari hizlari baino. Eskerrak Arantza, behintzat, saiatu zen Ttakunparen ibilbideari buruz zertxobait azaltzen. Aspalditik elkar-tzen omen zen lagun koadrila bat djenbe-ak jotzera, baina Ttakunpa, talde bezala, orain pare bat urte sortu zen. Bi arrazoi nagusik bultzatu zuten Ttakunparen sorrera. Bata, txalapartak perkusio afrikarrarekin lotzean sortzen den lotura berezia izan

zen; beste arrazoiak, berriz, Aranek eta Mikelek Senegalera egin zuten bidaiarekin du zerikusia. Bidaia honetan Senegalen barrena ibili ziren bertako kultura, jendea eta musika ezagutuz. Oso harreman estua izan zuten senegaldarrekin, beraien etxeetan lo eginez eta bizitza konpartituz; esperientzia bikaina, azken finean. Han zeudela, bertako dantza eta perkusio batzuk ikasi zituzten, baita kenkeni bat erosi ere. Kenkeni-aren soinuaz txunditurik, iruditu zitzaizkien beharrezkoa zela txalaparta eta tresna afrikarren konbinazioa oinarri zuen taldea sortzea.

Txintxi, Ane, Kortxo eta Tzunyek lehenik jarduten zuten djenbe-ak jotzen eta gustura hasi ziren Ttakunpa bezala talde lanean. Uhin eta Juan Luis geroago sartu ziren taldean. Uhinnek esperientzia dexente eta era askotarikoa du perkusio munduan (Zumaiako Udal musika banda, Atxantatu, Alfonbra); Juan Luisek, berriz, herriko zenbait plaza taldetan jotzeaz aparte, perkusio ikastaro bat egin zuen Malin eta trebezia berezia lortu zuen. Ikus daitekeenez, Euskadi-Afrika konexioa begibistakoa da. Afrikaz hitz egitean, Afrika beltzeko mendebalde inguruko eragina nabarmendu behar da, Senegal, Ginea eta Mali aldekoa, alegia.

### Diskoa

CDa Hernialdeko estudio batean grabatu dute eta salgai aurki dezakegu

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

**SIWA**  
Belardenda

Basadi 9  
943 143404

- Elkidura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Sokonima
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

**TALAI**

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

Urola-Kostako zenbait tabernatan. Diskoan aurki ditzakegun zazpi kantua Ttakunparen erreperorioa hobekien islatzen dutenak dira beraien ustez. Abesti baten zati bat Senegaleko erritmo herrikoi batean oinarriturik dago, baina, hala ere, diskoan aurki ditzakegun beste abesti guztiak Ttakunpak egindakoak dira goitik behera. Amalda Abesbatzak ere zeri-kusirik izan du diskoa grabatzean, bi abestitan entzun baititzakegu Ttakunpakoekin batera.

**Etorkizuna**

Ttakunpak etorkizun oparoa izango duela dirudi. Berrogeita hamar bat kontzertu emanak dituzte jadanik eta ez dirudi batere nekatuta daudenik. Orain dela bi urte Cádizko EA! taldearekin jo zuten Itsasondon, eta harreman polita sortu zen harrezkeror. Elkar ezagutze horren ondorioz, ttakunpatarrek EA! ateratzekotan den diskoan kolaboratu dute. Horrela, txalapartak, djembe-ak, panderoa, ahotsak eta irrintziak, estudioan tangillo eta buleria erritmoetan erregistratuak



izan dira, elkartrukatzeko interesgarri batean.

Oraingoz kontzertu dexente dituzte antolatuta eta uda partean Leonen jotzeko aukera izango dute, bigarren aldiz jaialdi batean. Baina badakizue, aukera onena maiatzaren 14an izango duzue, Aita Mari zineman, gaueko 22:30ean (debalde!).

**Datozen kontzertuak:**

**2004/05/23 BEASAIN (Txoznetan)**

**2004/05/29 IGELDO (Frontoian)**

Harremanetarako: [ttakunpa@ttakunpa.com](mailto:ttakunpa@ttakunpa.com)

670 040 086

627 780 860

Web orria: [www.ttakunpa.com](http://www.ttakunpa.com)

**Galdona**



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

EGUZKI  
PUB  
Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 10 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



Erribero Kalea 20750 ZEMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73



ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**



Angeles Sorazu, 2  
Tel. 943 143089

bixente esteibar "izkiña"

## “Hiru-lau ordu egiten ginttuan tabernatik atera gabe kantuan”

ABELIN LINAZISORO

Aurrerantzean, aldi behin Zumaiako beteranoren bati, 60 edo 70 urtetik gorakoari, egindako honelako elkarrizketaren bat ekartzen ahaleginduko gara, herri baten kontu zaharrak jakitea denontzat interesgarria izango delakoan. Oraingoan Bixente Esteibar "Izkiña" aukeratu dugu, berak esateko duena gustatuko zaigulakoan.

### Noiz jaio hintzen eta zein eskoletan ibili hintzen?

1933an gerra aurretik jaio nittuan eta 6 urte arte Tuntuxeneko eskolan ibili ondoren, gero herriko eskolara. Han sartzera koan eta irteterakoan *Cara al sol* kantatu behar izaten ginien eta baita *España, una, grande y libre* diarra egin ere. Han kurtso bat egin eta maristetara.

### Maristetara ala merzedarioetara?

Maristetara. Baina zoritxarrez, nik oraindik kurtso bakarra-edo eginda neukala, Zumaiako alkateak herritik bialdu egin zizkian, gerra garaian gudariei lekua laga zuela-eta, eta berriro *Cara al sol* kantatzen. Hala ere, herriko eskolan bazegoan maixu bat euskeraz zekiena eta honekin euskeraz kanta bakar bat badare ikasi eta

kantatu ginien. Batean bakarrik. *Hator, hator*. Merzedaxuak ekarri zituztenez, gu hara. Onak zialakoan. Esamin bat egin zigutean Manolori eta neri. Beno, esamina ez, ezer ez, beraxe ere ezer ez zekitean-eta. España kapital?, haixek, eta gure Manolok: Bilbao. Muy bien chaval, eta barrura.

### Merzedarioak fama txarra zitean.

Haixek gaiztuak ittuan, motel. Hamaika kaskarreko eta masaileko jaso nian. *Isabel y Fernando* egunean lautan kantatzen ginien. *La sagrada bandera, Arriba España* eta beste horrelako zenbait kantekin. Larri ibiltzen ginttuan erderaz ez genekielako, eta erderaz ikasi behar. Hala ere, errekreoan geure artean euskeraz egiten ginien. Ostegun arratsaldetan jai izaten ginien eta ixa-ixa nahixo izaten nian eskola eguna. Arratsalde osoa lanean, hi. Lehenbizi surtako egur bila eta gero deberrak. Urjala izan bazan, Santixora txotxa bila; bestela, egur bila San Migel azpira, edo txirbilotara Beduara edo Zakariasenera ezpala bila. Ikatza oso garestia uan; beno, ikatzik ere ba al zegoan orduan, ba? Egur-ikatzaz saltzen zien. Gero, udako oporretan ere arratsaldero lauretarako zuen denda aurrean egoten

nittuan zuen aittari tomatientzat papeletak egiten laguntzeko. Ni bakarrik. Beste lehengusuak oso urruti bizi zirelako, hi!

**Egia. Haiek orain Aita Mari auzoa dagoen tokian bizi ittuan eta oso urruti uan orduan hura, bai. Beno, lanean noiz hasten zintaten?**

Hamalau urterako mundu guztixa. Ni



**Azkue Autoak**

Trenbide Pasealekua,4  
Pab. 2

Tf. 943 861 433

**AITA MARI  
KAFETEGIA**

Julio Beobide,15 Tel. 943 861395 Zumai



**Arkupe**

*Okindegia  
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

hamahirukin hasi nittuan. Lanerako galtza luziekin eta kalerako oaindik galtza motxekin. Egunean 10 ordu lan egiten ginien, edo gehixo, baina zapatuetan arratsaldeko 5:30tako kalera. Orduan aste burua zapatu gaua eta jaxa izaten ittuan. Hasiera batean, zapatuetan, lanetik irten, garbitu, aldatu eta koadrilan ibiltzen ginttuan, zerbeza pixkat edanez edo sagardo. Gerorago etorri uan txikiteoa, eta parranda haundixenak, zapatuetan ez, jaxetan egiten genitien; gero, hurrengo egunian, beno, lanera jun baino nahixo hil. Hain asteburu motxakin parranda derrigorrez egin behar izaten ginien. Danok kalean, haixek eta dirua gastatu arte, diru asko ez ginien ibiltzen-eta.

**Garai hartan euskerazko kantak normal kantatzen al zenituzten?**

Bai. Ixildu gabe. Orduak eta orduak. Normalean taberna barruan kantatzen ginien eta gurekin ez uan inor sartzen. Jaxa etorri eta bazkal ondoren Beduara, Gau-Txorira, Getaira...ez Zumaxan kantatzeko beldurra genuelako, kanpora irtetea guretzat abentura edo horrelako zerbait uan. Gainera, gu bakarrik lasai-lasai egoten ginttuan hiru-lau ordu kantuan. Ardo



lodi-lodixa edaten ginien, barrua berotu eta dirua baldin bazeon, kafe torero hartu eta segi parrandan.

**Neskatan-eta nola moldatzen zinen?**

Neskatan?! Gu?! Orduan ez zegoan gaurko konturik, motel. Geuretzako ez uan ailegatzen eta guk neskaai konbidatu? Gainera, mutilak elkarrekin koadrilan ibiltzen ginttuan eta ez ginttuan neskaai kasurik egiten. Soldautza egin arte ez behintzat. Gero hasi ginttuan, bai, usaian-edo.

**Herriko festetan ere neskei kasurik egin gabe?**

Beno, dantza pixkat egiten ginien. San Telmotan kofraiko plazuelan eta San Pedrotan Beheko Plazan. Baina gainuntzian, ia batez. Jai egunian batela hartu eta askotan Beduara jutun ginttuan eta hainbeste ginanez, 10 edo 12, baten bat beti uretara eroritzen huan. Beti. Koadrilan oso ondo moldatzen ginttuan, pentsa zak, soldautzara jun aurretik soziedade bat formatu ginien. San Telmo kalia Sanbuxoneko itxian. Lehenbiziko soziedade gurea izan uan, Pulpo txikixa eta hauek baino lehen. Hasieran ardo edan bakarrik egiten ginien, baina gero legearen barruan jarri behar zala-eta, deportia, edo horrelako zeozer bultzaz, guk zera pentsatu ginien, soziedad kultural bat jar-

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

*fidatzeko baimen fuztiak*



**GANBARA**  
Taberna  
juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

**OSTOLAZA**  
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea  
tel: 943 86 16 66  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

**Nikol**  **Enea**

**TABERNA**

Amaiako plaza



**“Ardo lodi-lodixa  
edaten ginien, barrua  
berotu eta dirua baldin  
bazeon, kafe torero  
hartu eta segi  
parrandan”.**



tzia, biblioteka batekin. Gutako bat gobernadoriarengana ere jun uan baimen eske, baina... Hemengo apaizak enteratu ituan eta izorrai! Gu ez ginala nor eta ez dakit zer eta badakit zer. Sanbuxoneko etxetik kalera, gainera.

**Eleizakin topo egin diagu, Bixente.** Bai, gizona. Gu Donostitik zerbait ekarriko genuelakoan gitxibiztian. Itxura pixkat ere egin behar ginien, ez pentsatzeko dana ardoa zala, baina... Oaindikan hor zeukat errezibo bat. Kuota bat pagatzen ginien. Diru asko gainera. Zumaxan orduan ia ezer ez zegoan, eta jende zaharrak-eta gurekin sozixo nahi zian, baina... izorrai!

**Nolakoak ziren, ba, orduko elizako kontuak.**

Hori hik nik aina jakingo dek. Mutil danok luistarrak gintuan eta neskak Hijas de Maria. Hilero jaunartzea izaten uan, prozesixuak, sermoiak... Bazegoan parroko bat, Don Bidal, zinea eta plaia, plaia eta zinea, beste konturik ez zian harek buruan. Dena pekatua uan. Eleizak kriston indarra zian. Animen sermoietan, adibidez, tailerrak astebetean, egunero, arratsaldeko 6:30tan edo 5:30tan itxitzen zizkien. Gizonezko danok eleizara juteko, eta juten ez zana, beno, oso gaixki ikusita, hi. Misixuak ere izaten ituan, hauek ere astebetekuak. Eta Aste Santuko prozesixuak? Ostegunian eta ostiralian herri osoa juten huan, parrokitik Andre Mariraino. Erramu egunian sakristixan sortea egiten uan nork zer santu eraman erabakitzeke eta hara ere herriko familiak, danok, dirua eman behar izaten ginien.

**Zuek, gu bezala, Luistarren zentroan asko ibiliko zinate, ezta?**

Erribera kaleko batzokixa itxita zegoenez, zentroa alondegixaren gainean zegoan. Han antzerkiak-eta egiten ituan. Espainolez. Baina baita euskeraz ere. "Gizon bikainak" eta horrelakoak. Bandera espāñolakin eta biba espāñaka jardun zuten antzerki batekin ere akordatzen nauk. Gero, batzokixa zegoen tokira aldatu zutenean, nahiko ibiltzen gintuan. Hango burua gaiztoagoa huan! Beste apaiz bat oso jatorra uan. Don Martin. Abertzalea. Hin xuxen horreatik bialdu zien herritik. Zentroan jokoan eta billarrean ibiltzen gintuan. Herrixan orduan lau billar zibeztian. Karanbolena Zentroan eta Erreketenean (Etxabe IV), eta perretxikoena, zuloekin, Bar Berrixan (Bar Cantabrico) eta Larramendineko tabernan.

jarraituko du...

*leapaindegia*

**I Z E T A**

Urumea, 6 Tel. 943 862083

**LEIZE**

taberna

Juan Belmonte, 6



taberna  
**JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Maiatzak 27, osteguna, 22:15ean

## En la ciudad

Zuzendaria: Cesc Gay

Aktoreak: Leonor Watling, Eduard Fernandez

Lagun talde bat hiri handi batean. Guztiak ere hogeita hamar urte ingurukoak.

Irene Manurekin dago ezkontuta eta alaba bat daukate, Marina. Arte garaikideko zentro batean egiten du lan. Emakume isila da, behatzailea eta itxuraz zorionsua.

Mario arkitektoa da eta Sararekin dago ezkontuta. Emaztea ikusi zuen lehen egunean izutu egin zen, begirada iltzatu eta irribarre egin zionean. Baina inoiz ez dio ezer esan horri buruz.

Sofia bere fantasiazki munduan bizi da, nahi gabe esandako gezurretan murgilduta. Bizitza beti aurretik joan zaio, eta bera atzetik. Bakarrik bizi da eta bi perikito dauzka.

Manu pertsona ona da. Badaukazu fidatzea berekin. Bizikide ideala... Irene emaztea da amesten zuen emakumea. Manu sukaldari ona da eta bere fideuak, berriz, klasikoak.

Sara figuringilea da. Mariorekin ezkondu zen eta hirigunean bizi dira. Sarak dena jakin nahi du, leku guztietan egon, ezer ez galdu.

Tomas musikaria da. Bateria. Klaseak ematen ditu, hila-ren amaierara iristeko. Banandu berria da. 5 urteko semea dauka. Utziko baliote, musikari bikaina izango litzateke.

Sentimendu eta nahi isiletan barrena. Ezkutatuta egoten diren sentimenduen munduan barrena. Bakardadea da nagusi *En la ciudad* filmean, istorio koral eta hirikoan.




Ekainak 10, osteguna, 22:15ean

## Soñadores

Zuzendaria: Bernardo Bertolucci

Aktoreak: Michael Pitt, Eva Green



Badirudi *Asediada* egin zuenetik Bertolucci erabat itzuli dela hasierako oinarrietara, hau da, arazo sozialak edo politikoak sexuarekin edo maitasunarekin nahastera, Marx eta Freud-en cocktaila, alegia. *Ameslariak* film hau 1968ko maiatzeko garaikoa da, baina Bertolucci askoz gehiago kezkatu da hirukote baten bizimoduaz kalean gertatzen ari zen iraultzaz baino.

Anai-arreba frantziarrek gonbidatu estatubatuarra dute etxean, burgesiaren umeak dira eta garai hartako irekitasunari lotuta, sexuan hezi nahiko dute amerikarra. Amerikarra Paris, Cinémathèque eta Nouvelle Vaguez liluratuta etorri da Europara eta anai-arrebek joko erotiko sexualetan parte har dezan nahiko dute.

Filma garai hari egindako omenaldi gisa ulertu beharra dago, baina baita zinemari egindako omenaldi gisa ere, bereziki Nouvelle Vague deitua izan zen frantziar zinema berriari. Azkenean hirukotea ez da eroriko nihilismoan eta gelako leihotik kristala txikitzen duen adreilu batek konturaziko die kalean iraultza hasia dela zapalkuntza behera botatzeko. Askatasun sexualetik hasiz askatasun sozialera doan bidea egingo dute protagonistek. Bikaina.

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzueterako departamentua



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

## Zu eta ni

# Z

u eta ni, ni eta zu, Joseba eta Naiara, tabernako mahaietan eserita. Zuk ebakia esne hotzarekin eta nik hutsa. Ni kalera ematen duen kristalari bizkar emanda eta zu parean, aurrez aurre. Nire atzealdean, kalean, aldian

behin norbait pasatzen da eta begirada joan egiten zaizu haren atzetik, eta pentsamendua ondoren, jarraian. Abailduta eta astun hormatik zintzilikatzen den ispilu kolorgetuak zure bizkarra islatzen du, eta ni aurrean, eta zure bizkarraren atzean ispilu abaildua eta zure bizkarra, eta ni aurrean, zu kolorgetua eta ni abaildua aurrean, gero eta txikiagoa, gorantz, etengabe, harik eta nire begi-ninia itxi eta txiki egin den arte. Esan duzu, didazu, bihar Bilbora zoazela, ikastaro batera, eta pentsatu duzu Bilbo aldean bueltaxka eman beharko duzula, Alde Zaharrean, behin hara joanez gero, zer erositako izango dela eta. Baina ez duzu esan. Bilbora... Nik pentsatu dut bidean, autopistatik Durangon irtenda, buelta ederra eman litekeela Durangaldean, Urkiolatik abiatuta, baina are politagoa Atxartetik irtenez gero, bai, begira, datorren jairako plana; komentatu beharko diot Joxemairi... Galdetu dizut noiz arte daukazun ikastaroa eta zein ordutegirekin, eta pentsatu komeniko litzatekeela goiz irtetea mendi-buelta egiteko. Zuk esan duzu egun osokoa dela ikastaroa, eta gauza gehiago ere esan dituzu, baina buruan eta ahoan dituzunak



ez datoz bat. Esan duzu oso ikastaro interesgarria dela, curriculumerako, baina pentsatu duzu arropa erosi behar duzula, galtza berriak, eta zapatak ere bai. Azkeneko aldiz auskalo noiz joan zinen Bilbora erosketak egitera... Kaleko farolak piztu dituzte nire bizkarraldean; kanpoaldetik datorren iluntasuna argitu egin da. Halaxe sumatu dut aurrealdeko ispiluan. Niri begira zaude, ni zure irudiari begira, ispiluan, eta bizkarra ematen didazu behin eta berriz, eta nik ere bai zuri, aurrez aurre eta zuri begira egonagatik. Zuk ebakia bukatu duzu eta nik hutsa. Zu eta ni, ni eta zu, Joseba eta Naiara, tabernan eserita, ez gara gu, ordea.

Joseba

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853





**OPERA BILBON**

Maiatzaren 22an kultur irteera izango da. Egun horretan, Bilboko Arriaga antzokian, Joseph Haydn-en "Il mondo della luna" opera komikoa ikusi ahal izango da. Izenak Forondan eman beharko dira hilaren 18a baino lehen. Sarrerak 16 eta 21 eurotan daude salgai.

**ERAKUSKETAK**

- Alondegian.
- FORONDAKO PINTURA TAILERRA: maiatzaren 14tik 30era.
- Ekainaren 3-20 OLATZ GOIBURU

**DEIALDIAK**

- ARGAZKI AUKERAKETA 2004: argazkiak aurkezteko epea: maiatzak 31 bitartean. Informazioa, kultur etxean.

- ZUMAIA LORETAN-Balkoi eta leihoetako lehiaketa. Izenematea kultur etxean ekainaren 21a baino lehen (943-861056)

**KULTUR IRTEERAK**

- Maiatzaren 22an: Bilboko ARRIAGA antzokira, "IL MONDO DELLA LUNA" opera ikustera. Txartelak, kultur etxean (943-861056)
- Ekainaren 5ean: "SENDA VIVA" parke tematikoa ikustera. Baltherra (Nafarroa)

**AGENDA**

- Ostirala 14: 22.30ean TTAKUNPA perkusio taldearen kontzertua, beren diska aurkezteko. Sarrera dohain
- Igandea 16: 12.30ean Maria eta Jose aretoan: ANDOINGO MUSIKA BANDAREN kontzertua.
- Ostirala 21: 22.30ean PATXI SAIZen kontzertua
- Igandea 23: 12.00etan haur antzerkia, HITZAK PATRIKETAN
- Osteguna 27: 22.15ean

zineforum saioa "En la ciudad"

- 28tik 30era: ESTAZIO AUZOKO JAIK
- Igandea 30: 12.00etan Maria eta Jose aretoan, UDAL MUSIKA BANDAREN kontzertu didaktikoa

**EKAINA**

- Larunbata 5: Aste Berdea-Argazki Rallyea: 9.30etik 19.00etara. Oinarriak kultur etxean eta turismo bulegoan.
- Osteguna 10: 22.15ean zine forum saioa "Soñadores"
- Larunbata 12: 19.00etan Alondegian ARGAZKI RALLYEko sari banaketa.
- Osteguna 17: Aste Berdea-zine emanaldia "Deep Blue"
- Ostirala 18: 19.30ean Alondegian diapositiba proiektzioa: "Trainerua Irlandan"
- Larunbata 19: Egun osoan zehar Santiago hondartzan, MULTIABENTURA TOPAKETA.

- 23.00etan Itzurun hondartzara gainean, Musika Eskolako ikasleen ROCK KONTZERTUA. Gonbidatu gisa herriko zenbait taldek joko dute.
- Osteguna 24: 22.15ean zine forum saioa "21 gramos"
- Larunbata 26 : SAN PEDRO TXIKI ABESBATZA eta Italiako CLES herriko Abesbatza Gaztearen arteko topaketak: harrera eta kontzertua.
- Igandea 27: egun osoan zehar, ARTISAU AZOKA 22.30etan, Aita Mari aretoan, Aukeran dantza taldearen "Sutargi" ikuskizuna.
- 28tik aurrera, SAN PEDRO jaiak

**LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA:**  
 TEL: 943-862730  
 liburutegia@zumaia.net  
 - Azterkeletarako ordutegi berezia: maiatzaren 10etik aurrera Astelehenetik ostiralera, 9.30etik 20.00etara, jarraian.  
 - Haur liburutegia: astelehenetik ostiralera, 16.00-20.00

*Alberdi*  
 Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6  
 Tel. 861155

**GAZTE, S.L.**  
 ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan*

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

**TAILERRA: Estazioko kalea, 23**  
**Tel. mugikorra: 608 143409**

B. Etxegarai 2, behea  
 943 86 27 14




**GAZTEEN ERROPA**

dekorazioa

**ALBERDI**

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
 943 143261



**TXINGURRI**

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
 GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAVITZ  
 (GIPUZKOA)  
 Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

- Jardinen diseinu ... mantenimendua
- Nekazaritza zerbitzuak
- Kirol zelaien mantenimendua
- Txostenak ... aholkularitza teknikoa.
- Baloriozkoak

**LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK**



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa "luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

**BANAKAKO AURREKONTUAK**

Bonifacio Etxegarai plazakoe z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
 Tel. 943862309

# BALEIKERen LEHIAKETA!!!

Elhuyar edizioak-ek argitaratu du Gipuzkoa zure esku izeneko mahai jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko. Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza. Mahai-joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:

Maiatzean eta ekainean bina joko banatuko ditugu. Bat bazkideen artean zozketatuta eta bestea jarraian datorren galdera erantzuten dutenen artean.

Erantzunak: BALEIKEko buzoian edo aldizkaria@baieike.com helbidera bidali



- ✍ Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzailleen aurka . Gipuzkoa zeharkatzen duen abentura grafikoa da.
- ✍ Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa , mahai jokoa. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolasteaz gain, joko honek Gipuzkoa osoa ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Maiatzeko galdera: **Zein herritan egin behar dute Ekain leizezuloaren erreplika?**

**TOMIAS TABERNA**  
- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza 943 86 19 16

**AIZPURUA**  
R U D E N D A

Alta-Mari auzotegia, 17  
Tel. 943 861569

**Xanti**  
ALTZARIAK S.L.

Mota guztietako altzariak  
Xanti Osa

Amia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA  
Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569

**ARGIA**  
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224

**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

**Hortz klinika**  
Mozès Hiriart eta SOULIER  
Odontologoak

- \* Odontologia orokorra
- \* Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- \* Endodontzia
- \* Implantologia
- \* Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- \* Protesia
- \* Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

**Larunbatetan egun osoa zabalik**  
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

ile-apaindegia

**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



# Casa BASUSTA



CASA  
BASUSTA

LORATEGIA

Ezkontzak, Bqtaioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zuzuzko saskiak



*Etxez etxeko zerbitzua*

Santiago auzoa, 18 TEL: 943 862611

## ERROTA



## OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60